


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 2,7 igo dira 2022ko urtarrilean

Urte arteko terminoetan, 2022ko urtarrilean 2021eko urtarrilaren aldean, kostuak % 6,7 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 2,7 igo da 2022ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil beraren aldean (2022ko urtarrila, 2021eko urtarrilaren aldean), kostuak % 6,7 hazi dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 2,8 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 2,1. 2021eko urtarrilaren aldean, prezioak % 6,5 igo dira Etxegintzan eta % 7,9 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2021eko abenduaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 1,8 igo dira, eta **eskulanarenak**, berriz, % 5,8. Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kostuak % 7,0 egin du gora, eta eskulanarenak % 5,8.

Etxegintzaren sektoreak % 1,9ko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilarenean % 1,0koa izan da igoera. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 6,7 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 8,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2022

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	115,3	2,7	6,7
Eraikinak	115,1	2,8	6,5
Obra zibila	116,0	2,1	7,9
Lehengaiak	114,8	1,8	7,0
Eraikinak	114,6	1,9	6,7
Obra zibila	115,8	1,0	8,5
Laneskua	116,7	5,8	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Otsailaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, 2022ko urtarrilean, 2021eko urtarrilaren aldean, hauek izan dituzte igoerarik handienak: *Petrolioia fintzea* (% 40,0ko igoera), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 32,9koa) eta *Metalurgia* (% 30,6koa). Prezioetan hazkunde apalenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Mineral ez-metalezkoak* (% 0,5eko igoera) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 2,3ko igoera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Urtarrila 2022

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

	m / m-12
Ezmetalezko meak	0,5
Zuraren eta kortxoaren industria	15,5
Petrolioia fintzea	40,0
Industria kimikoa	20,9
Kaubua eta plastikoa	2,3
Produktu mineral ez-metalezkoak	7,8
Metalgintza	30,6
Metalezko artikulua	8,1
Material elektronikoa	6,8
Material elektrikoa	3,9
Makineriaren fabrikazioa	4,1
Altzarigintza	3,9
Energia elektrikoa eta gasa	32,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Otsailaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62